



Astekaria



elgoi



**Txotx!**



### BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Errasti

Banatzailea: Julio Bueno

- "Solar Gailur" ardoak
- "Ardandegi" Ardoak
- "ZUDUGARAI" Getariako txakoliña
- "Cavas HILL" en ordezkaritza
- "ILAGARES" ardo nafarraren ordezkaritza



*Etxerainoko banaketa*

**Ura • Patata • Makailoa • Likoreak**

Errosario, 20 • ☎ 74 02 37 • ELGOIBAR

**PROIEKTU  
ERREFORMA  
ALTZARI ETA  
OPARIGAIETAN  
ONENAK**

*Argazkiak ikusi  
besterik ez duzu!*



**DEKORAZIOA**

Santa Ana kalea 2 • Tel 74 35 09 • 20870 **ELGOIBAR**

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**  
Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**  
Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**  
Alberto Agirreazaldegi.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**  
Anjel Ugarteburu.

**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Eduardo Bilbao, Rosa Iriondo,  
Jose Inazio Sarasua.

**KAZETARIAK:**  
Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**  
Maite Rementeria,  
Edu Sanz.

**PUBLIZTATEA:**  
Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**  
Itziar Agirregomezkorta, Ana  
Aizpiri, Pello Aizpurua, Gotzon  
Arrieta, Pello Arrieta, Montse  
Arregi, Belen Arrizabalaga, Jon  
Barandiaran, Mikel Cornejo, Asier  
Etxaniz, Felix Etxeberria, Itziar  
Fernandez, Koldo Galdona, Jose  
Mari Galdos, Ina Garagarza,  
Gotzon Garate, Joseba Gorosabel,  
Xabier Gorriti, Alfonso Guilló,  
Maite Iriondo, KOKOE, Eduardo  
Korta, Enrike Larrañaga, Imanol  
Larrañaga, Nerea Lodoso, Jesus  
Mari Makazaga, Iñaki  
Odrizola, Jose Inazio Sarasua,  
Olga Unzilla, Miryam Villasante,  
Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**  
Imanol Larrañaga


**INPRIMATEGIA:**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.300 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere  
gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanen eta  
iritzien erantzunkizunik.



# ZENBAT BURU



## HAINBAT ABURU

### Nola bizi irrika barik ???

**K**omunikabideen garaian bizi gara, teknika aurrerakoien boladan, mingain luze eta arkat azkarren paradisuan, eta aspaldi honetan aho bete ibili dira mundu istilutsu honetatik, "X" a astintzen. Inkognita guztiak askatzea benetan zaila da, niretzat behintzat, baina gure inguruko batek utzi nau ni erabat harrিতa: X BELAUNALDIAK.

Eta zer da hori? Galdetuko duzue zuetako askok. Ez da erraza azaltzen, baina motzean esateko, gaurrengungo gazteak zaku batean sartzeko erabili izan den hitz jokua da.

Beraien arabera, gaur eguneko gazteak geurekoiak gara, ez dugu bizitzeko grinarik, ez dugu ezertan sinisten... ez dugu... ez dugu... ez dugu... Estadistikak neurri batean onartu behar ditugula argi dago, horretarako egiten baitira; baina askotan zenbaki hutsak dira, multzo zabal batera hedatu ezin diren datuak.


60. eta 70. hamarkadetan, gazteak gutxietsi egiten zituzten, eta 90.ean berriz, haiek pertsonalitate ikaragarria zutela esatera datoz. Agian gu hogeitau urte barru ez gara hain arrotzak izango. Agian beste era batera ikusiko gaituzte. Baina gaurkora itzuliz ez dut uste idatzi hau irakurtzen ari diren gazteek, bizkarrean Xa margotuta dutenik.

Axola zaizkigu, eta asko, inguruan ditugun arazoak, ez zaigu hain bizitza "komodoa", eroso tokatu. Drogak bazterrak astintzen dituen bitartean, ikasketak burutzeko gai direnek, kaleak ibiltzen dituzte lanen bat espaloian aurkituko duten esperantzarekin. Baina, usteak usteltzen direnean, eta ilusioek hegan egiten dutenean ez da erraza izaten burua altxatu eta aurrera egitea. Baina saiatzen gara!!! Zer demontre, intsumisioaz arduratzen gara; ekologiaz; herri mailan gazteok gure txokoa izan dezagun borrokatzen dugu; elkarte ezberdinak osatzen dira tokian tokiko eta garaian garaiko istiluak salatzen. Baina izan gaitezen errealistak, zenbat aldiz zabaltzen dizkigute ateak? Zenbat aukera ditugu gaurrengungo gazteok berez leporatzen diguten egonezina asetzeko? Begiratu ingurura eta erantzun...

Gazteak omen gara "etorkizuna" baina, etorkizuna eraikitzen oinarri bat behar dugu, eta ditugun ideiak gauzatzeko tresnak. Xak Yak, Zk... beti izendatu nahi izango dute kontrolatzen eta ulertzen ez dutena, baina gu ez gara hizki bat, bixi-bixi itxaropena izan nahi dugun pertsonak besterik ez gara... izan ere, nola bizi irrika barik???

Susana Mujika

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



## GALDERAK

### • Lehen Ubitarteko taberna zegoen lokalean, zer egiteko/jartzeko asmoa dago?

Joxin apaizarekin egon gara eta zera esan digu:  
“Informazio hori jaso nahi duenak deitu dezala 74 16 29 telefonora eta nahi duen informazio guztia emango diogu”.

## KEXAK

Emakume batek txakur kakak direla eta, kexa bat plazaratu nahi du, dagokionak arazo hau behingoz konpontzeko zerbait egin dezan. Izan ere, joan den astean, Anbulategitik Banco Gipuzcoanora bitarteko espaloian zehar, bost txakur kaka eskibatu behar izan zituen.

## TXALLOAK

Ehizara zaletua den irakurle batek Patxi Arriolak Espainiako oilagorren Txapelketan lortutako lehen postuagatik zorionak luzatu nahi dizkio eta txapelak lortzen eta elgoibartarron entzutea gure mugetatik at zabaltzen jarrai dezan animatu nahi du.

## ESKUTITZAK

### Topikoak beti topiko

**Z**oragarria iruditzen zait baina denetik dago. Orokorrean txarrak dira, badaude ondo gidatzen dutenak baina normalean...” Ez dago bi aldiz irakurri beharrik zertaz ari den asmatzeko. BARRENen, 91. alean, Fernando Moreno taxistak esandako hitzak dira. Denetik eta handiagoak ere antzundakoak gara, baina oraidik ere horren lasai botatzen diren esaldiak min egiten didate. Min egiten didate emakumea naizelako eta gidaria ere banaizelako. Ez noa istripuei buruz dauden datuak ematera, ez dauzkadalako eskura eta gainera nahikoa jakinak direla uste dudalako. Ez dut uste ezer frogatu, defendatu edo konparatu beharra dugunik 2.000 urtearen atarian.

Errazegi esaten dira gauzak, Fernando, bi aldiz pentsatu gabe. Eta egin ere, errezege egiten dira gizarte honetan gizonezkoak eta baita emakumezkoak ere, bizi garela ahaztuz. E!! zuek, hemen gaude!. Urrutirago joan gabe, goazen Mintxetara. Bertan gimnasia piska bat egin eta dutxa bat hartu asmoza aldageletara sartunaiz. Txixagurerik ez izatea espero dut, benetan zaila egingo bait zait mutilentzat bakarrik

diren ormetan zintzilik dauden txixalekuetan egitea.

Beste mila adibide jar nitzake baina ez dut uste horrek inora eramango gaituenik. Baina gauza bat eskatu nahi dizut Fernando: hurrengoan bi aldiz pentsatu horren esaldi borobila bota aurretik. Eta Mintxetako aldagelak diseinatu dituzuenoi gogorarazi futbolistez gain badirela kirola egiten duten emakumezkoak ere.

**M.M.R.**

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





**A**ste honetako erretratua **Parapango Dolores**ek lagatakoa da. Berau 1944. urtearen bueltan Arantzazura egindako bidaian atera zuten. Erretratukoak San Lorenzo, San Migel eta San Pedro bailarakoak dira, tartean bertako “maistrak” daudelarik. Zeintzuk diren?

Behetik gora, ezkerretik hasita:

Lehenengo ilaran, eserita: **M. Cristina Zabaleta**, **M. Carmen Elustondo**, **Miren San Martin**, **Maria Alonso**, **Maribel Arriola**, **M. Teresa Barrenetxea** eta **Pakita Barrenetxea**.

Bigarren ilaran, zutik: **M. Cristina Garcia** andereñoa, **Teodora Elustondo**, **Begoña Juaristi**, **Maria Etxaniz**, **M. Carmen Agirregomezkorta**, **Juanita Andonegi**, **Felisa Balzola**, **Petra Arrillaga**, **Maria Osoro**, **Elena Aizpurua**, **Margarita Unamunzaga**, **Natalia Arrien** andereñoa (†), **Anita Galdos** eta **Antonia Gurrutxaga** andereñoa.

Hirugarren ilaran: **Josefa Aizpitarte**, **Gloria Arriola**, **M. Dolores Etxeberria**, **Juanita Uranga**, **M. Carmen Irusta**, **Begoña Altuna**, **Eustakia Idigoras**, **Agurne Muguruza**, **Carmen Larrañaga**, **Jesusa Kortaberria**, **Amaia Trokaola**, **Pepita Mugerza** eta **Lorenza Eizagirre**.

Laugarren ilaran: **Don Jose Agirrebalzategi** apaiza (†), **M. Cruz Zuazubizkar**, **Dominga Unamunzaga** (†), **Benita Mugerza** (†), **Juan Migel Esnaola**, **Jose M. Etxeberria**, **Jose Osoro**, **Miren Muguruza**, **Begoña Zabaleta**, **Miren Agirregomezkorta** eta **Pakita San Martin**.

Bostgarren ilaran: **Victorio Etxeberria**, **Jose Barandiaran**, **Valentin Egaña**, **Andres Badiola**, **Juan M. Agirre**, **Genaro Lazkano** (†), **Jesus Alonso**, **Andres Osoro**, **Andres Garate**, **Juan Jose Etxaniz**, **Eusebio Osoro**, **Manuel Zabala**, **Iñaki Lazkano** (†), **Sabin Txurruka**, **Javier Arriola** eta **Donato Barandiaran**.

## ETXE ZURI



**SAGARDOTEGIA-JATETXEA**

▪ Urte osoan txotxeko sagardoa. ▪ Aste guztian irekita, astelehena ezik. ▪ Kuadrila handiak izanez gero, hobe aurrez enkargatzen bada.



SAGARDOTEGIA • JATETXEA • LOGELAK

FL ML

65 40 05 Larraitz auzoa ABALTZISKETA

## Baserritarrak okin lanetan

Gero eta gutxiago dira haseran bezalaxe, denborak eraginik izan ez balu bezalaxe, irauten duten tradizioak. Horietako bat gure baserrietan egiten den ogi tradizionala da. Baserri askotan etxeko kontsumorako egiten dute ogia, beste batzuetan etxerako ezezik, kanporako ere egiten dute, enkarguz. Azkarate gainean, izen bereko baserrian, Lorea Etxeberriak jarduten du okin lanetan. Honek amarengandik ikasi zituen ogi goxoa egiteko sekretuak eta, gurasoengandik semengana pasatzen diren tradizioek behar duten bezala, Lorearen semeek ere ikasi dute dagoeneko ogia egiten.

**L**orearen ama, Ines Ucin, izan zen ogia egiteko tradizioa hasi zuena. Honelaxe kontatu digu Inesek nola hasi zen kanporako ogia egiten: “Inguruko baserrietako lau emakume autobusean jeisten ginen herrira eta igoera Kortaberria taxistarekin egiten genuen. Behin,

labe-sua egin behar nuela esan nuen eta taxistak, ea berarentzat ogi bat egingo nuen galdegin zidan. Nik baietz erantzun eta, handik zabalduz zabalduz, 30 urte eman ditut ogia kanporako egiten”.

Gaurregun Loreak jarduten du okin lanetan, amak lagunduta.

Ia egunero egiten du ogia, jaiegunetan ezik, noski, “baina beti ere segun eta zenbat enkargatzen dien”. Goizerako enkargatutako ogia egiteko goizaldera jaikitzen da eta gauerako eskatutakoa egiteko, berriz, arratsaldean aritzen da. Astean 250 bat kilo irin izango dira. Elgoibarren ezezik, Eiba-

### Ogia nola egin pausuz pausu:

- OSAGAIAK: Ura, legamia, irina eta gatza.
- PROPORZIOAK: 25 kilo hirineko 15 litro ur.



**1** Lehenik, osagaiak nahastu eta eskuz landu, masa sendotu artean (ordubete).



**2** Behin masa egindakoa borbildu egiten da eta trapu batekin estali. Ogia orain harrotu egiten da (ordubete).



**3** Ogiari forma eman aurretik egurrari sua ematen zaio labea pizteko. Behin labea bero dagoenean sugarrak ateratzen dira, gero ogia sartzeko. Labearen berotasunarekin egosten da ogia.

rrren ere kontsumitzen da hemengo ogia. Azkaraten ezezik, beste baserri batzuetan ere egiten da ogirik: Panparron baserrian, Lekunberrin, Zabaletan eta Antxolan hain zuzen.

Guztira lau ordu t´erdi edo behar dira ogia egiteko. Prozesu osoa egiten da eskuz, tradizioak agintzen duen bezalaxe. Ogi zuria da barrutik, azal gogorrekoa, eta jateko bigun-biguna. “Jendeak uste du, dio Loreak, azal gogorra edukitzeagatik, barrutik ere gogorra egon behar duela, eta keba! ogi honek hiru bat egun fresko-fresko irauten ditu eta etxe askotan astebete osoa ere bai.” Ogi arrunta ezezik, eta hala eskatuz gero, ogi integrala ere egiten dute, irin integralarekin.

### Harrizko labea

Ogia egiteko modua erabat tradizionala da. Labea baserriko atariko estalpean kokatua dago. Haseran zegoen moduan kontser-

batzen da, harrizkoa barrutik zein kanpotik, eta sua egiteko egurra erabiltzen duena. Labea, ogiari forma ematen hasterako pizten da. Pinuaren adar zikuarekin egiten da sua. Sugarrak zabaldu egiten dira eta behin labea ondo berotzen



### 'Baserriko ogiak hiru bat egun fresko irauten ditu eta etxe askotan aste bete osoa ere bai'



denean, pinu adarrekin egindako erratz batekin labea ondo garbitzen da. Han geratzen den berotasunarekin egosten da ogia. Horrelako labe batean ez dago inolako temperatura kalkulurik egiterik, “iritzira kalkulatu behar”, dio Loreak. Alderik ere ba omen dago horrelako labe tradizional batean egin ala moderno horietan. Ea sekreturik dagoen galdetu diogu

Loreari eta berak ezetz erantzun digu, “sekreturik balego gainera, sekretua izango litzake!”

Labea etxetik kanpo egoteak badauka oztoporik. Haizea oso arriskutsua da, neguko hotzak eta udako beroak lana izugarri gogortzen dute, eta honi, ogia egiteko goizaldeko 4,30ak aldera jaiki beharra gehitu behar. Dena den, oilarraren kantua baino lehen jaikitzen ohitua dagoela azaldu digu Loreak eta hotza, beroa, haizea zein labeko hautsa jasatera ere bai.

Bihar, etzi eta etzidamu ere, goizalde partera jaikiko da Lorea ogia egitera. Ogi egin berriaren usainarekin egunari ongi etorria ematea txarra ez bada ere, are hobea izango da hamarretako ederra egitea baserriko ogiarekin, odolosteaz, txorizoaz edo gaztai zati batez lagunduta. Eta sasoiari gaudenez, zergatik ez, sagardoa lagungarri ezin hobea izan daiteke.



**4** Ogiak gorputza hartzen duenean masa zatitu egiten da, pisatu (kilo pasatxo izaten du labera sartu aurretik) eta forma ematen zaio aizto batekin (ordu erdi).



**5** Bukatzeko labean sartzen da. (Ordu t´erdi).



**6** Egositakoan kilo eskas izaten du ogiak, mermatu egiten baita. Behin labeetik ateratakoan hautsa garbitu eta otarran sartzen da, gero herrira jeisteko.

## Txotx-eko ohitura

**A**urten hirugarren urtez jarraian sagardotegira joateko asmoa daukat. AEK euskaltegiko lagunek urtero, sagardotegi denboraldia hasten denean, halako txangoa antolatzen dute eta nik, urtean behin bakarrik denez, ez diot aukera horri joaten uzten.

Ematen du sagardotegietara joate hau gaur egun modan dagoela. Azken urteotan sagardoa txotxetik edateak *boom* moduko bat izan du eta jende askok bertara joatea erabakitzen du. "Giro hori nolakoa den jakiteko bada ere" esaten dute. Gero, batzuek, segun eta zein tokitara joan, demaseko ezustekoa hartzen dute, zutik jan beharragatik, toki ez oso erosoan (bateren batean ikuiluaren alboan ere bai) eta gainera hotzez akabatu beharrean. Beste batzuek, ordea, nahi beste edate horri erreparatzen diote bakarrik eta barrua ondo berotuta itzultzen dira etxera.

Nik uste dut sagardotegira gauzak argi edukita joan behar dela; hura zer den ondo jakinda. Sagardotegia eta sagardoa edatea inguratzen duen dena berezia da, eta hori ulertu egin behar da. Ez da itzelezko juerga edo beste juerga bat, eta kitto. Txotxeko ohitura aspalditik datorren ohitura da, geure kulturaren bete-betean sustraiturik dagoena. Sagardogileek haseran euren etxekoei eta inguruko baserrietakoei probatzeko ematetik datorrena (txalaparta joaz ematen zen abisua) eta besteak-beste bertsolaritzaren sorreraren kabia (bestetik, hau ez da zaila ulertzen, sagardoak ematen duen alaitasun-

ak derrepente kantatzera bultzatzen baitu).

Eta honetan guztian bada funtsezkoa den kontu bat: sagardotegira joateko, jakina, sagardoa gustuko izan behar da. Hori bai, ez da derrigorrez sagardozaile amorratua izan behar, Bilintx bertsolaria bezala (bera hala omen zen). Nahikoa da sagardoa edaten gozatzea. Izan ere, edan egin beharra dago baina neurrian (norberak ikusiko du zein den bere neurria). Eta edateaz batera, jan ere bai. Ezagutu dut pertsonaren bat edo beste bera bakarrik kupela hustutzeko ahaleginean jo eta fuego, tarteka batere jan gabe. Eta gero, klaro, autobusean bueltan kristorenak eta bi sufritzen, goragalea zela eta ez zela. Gainera, jakingo duzuen bezala, menua ez da batere makala: bakailo tortila, txuleta eta postrea, gazta, intxaurrak eta irasagarra. Aproposagorik ezin!

San Sebastian egunaren bezperan zabaldu zen aurtengo sagardo denboraldia. Aurten otsailaren 10erako dago eguna jarrita. Nik dagoeneko eman diet izena AEKko kideei.



JON EUGI

**PUBLIZITATE  
ERAGIN  
KORRA**



egin nahi baduzu,  
deitu **BARRE**Nera

 **74 41 12**


edo zatoz

zuzenean gugana.

Nafarroa Enparantza, 2.



**OTATZA**

Otatza auzoa •  80 17 57 • ZERAIN (Gipuzkoa)



## Sagardotegira joateko ohitura daukazu?



**MARTA SAN MARTIN**  
24 urte, langabetua

Ez, ohiturarik ez. Ez naiz inoiz egon baina igual jungo gera ze, kuadrilakua afari bat eitzeko asmua daukagu eta sagardotegixak ezagutzeko gogua ere bai.



**JOSE ANTONIO MORENO**  
48 urte, langabetua

Lehen bai, baina orain ez, nagusitu egin gara eta! Kuadrilan gehiago mugitzen ginan lehen. Hemen inguruan sagardotegiren bat balego, primeran.



**ION GABILONDO**  
30 urte, kristalaria

Bai, honbre! Askok gustatzen jat bertako ambientia, sardaua, txuletia... dana! Sasoiak hiru-lau aldiz juten naiz. Oin ere prestatzen ari gera eskursiua.



**TERE IRIONDO**  
41 urte, etxeandrea

Lantzin bai, urtian behin juten gaitxun. Bertako saltsia, jatekoa eta... dana gustatzen jaku. Beti toki berdinerak juten gera, bakarra ezagutzen dinagu eta.



**ENRIKE PEREZ**  
74 urte, jubilatua

Oin ez, baina gaztia nintzanean asko juten nintzan kuadrilakin eta andriakin ere bai. Gauza ona beti gustau izan jaku, oin akordau eitzen gera baina... ezin!



**INIGO ORIA**  
33 urte, komertziala

Gutxi joaten naiz. Sagardua gustau arren generallian hotz eitzen dau eta tente jatia ez jat gustatzen. Epeletan eta jarritxa balitz, hobe.


### SAGARDOTEGIA

Aste guztian irekita eguerdi eta gauz.

- ▶ Bakailo tortilla. ▶ Bakailoa "ajoarriero" erara.
- ▶ Txuleta, sahietsak. ▶ Gazta eta menbrilloa.
- ▶ Intxaurrak. ▶ SAGARDO EZIN HOBEA.

*Guzti hau preziorik egokienean!*

Gabiri • ☎ 88 71 86 •



San Pedro auzoa 4  
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

## ■ Pintura erakusketa Kultur Etxean

Datorren hilaren 3tik aurrera Alberto Ramirez plaentxiarrak margotutako koadroak ikusgai egongo dira Kultur Etxeko erakusgelan. Erakusketa ostiralean, hilak 3, irekiko da bisitarientzat. Ramirez mekaniko dentista da ogibidez baina denbora librean pintatzen ematen omen du. Otsailaren 19ra arte plaentxiarraren margoak ikusteko aukera izango da ohizko ordutegian: astegunetan 19,00etatik 21,00etara bitartean eta 12,00etatik 14,00etara jaiegunetan.

## ■ San Lazaroko tonbola

Hona hemen San Lazaro Egoitzak antolatu zuen Misioetarako Tonbolan sarituak suertatu diren zenbakiak:

Eskuz margoturiko manteleria	3.952
Bordatutako manteleria.....	1.489
Bajila (20 pieza).....	3.461
Kristaleria (24 pieza).....	1.044
Likoreak.....	3.885
Maleta jokua (hiru).....	0.476
Irrati-erlojua.....	2.289
Toaila jokua.....	2.120
Zartain jokua (hiru).....	2.803
Gantxilo tapetea.....	2.904

## ■ Eusko Ikaskuntzaren ikerketa beka

Eusko Ikaskuntzak bi ikerketa beka, bata "Agustin Zumalabe ikerketa beka" eta bestea "Angel Apraiz ikerketa beka" ematen ditu, zientzia orokorren alorrean ikerketa bultzatzeko. Lehen beka antropologia, gizartea eta ekonomia zientzien gaia sakontzeko izango da aurrean, eta bigarrena arte plastikoak eta monumentalak, zinematografia, folklorea eta musikari buruzko gaiak aztertzeko. Dokumentazio guztia otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko da Eusko Ikaskuntzaren bulegoetan, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, Donostia. Tel: 31 08 55.

## San Juan Bosco jaia ospatu dute Herriko Institutuan



Herriko Institutuak San Juan Bosco eguna ospatu du, gaur, hilak 27. Goizean goiz hasi dira ekintzak. Ohi denez, kros txapelketak eman dio hasera jai egunari. Parte hartu duten korrikalari prestuek San Antolin eta Mekanika bitarteko ibilbidea egin behar izan dute. Jarraian goiti-beheren jeitsiera izan da San Rokeko aldapan. Kirolarekin jarraituz, mountain-bike zaletuen txanda izan da segidan eta ordu berean, indarrak

berreskuratze aldera edo, tortila txapelketari eman zaio hasera. Goizeko ekintzak amaitzeko, soka-tira eta arto jokuak, eta futbito partidua irakasleek ikasleen aurka, jokatu dute Kiroldegian. Eguerdian lagun arteko bazkaria izan dute eta arratsaldean, kirolak kulturari paso eman dio bertso jaialdi batekin. Gaueko 9ak arte, Guass dantzalekuan bertsolari gazteen jarduna ikusteko aukera izango da.



**Aitor Gisasola**, bizikleta gainean eserita agertzen dena, izan da Ikastolako 8. mailako ikasleek ikasbidaiarako antolatutako zozketaren irabazlea. Zenbaki saritua 9.945 izan da. Argazkian agertzen diren besteak 8. mailako ordezkariak dira. Zozketan bildutako diruarekin Costa Bravako Tossa Del Mar herrira joango dira. Ondo pasa!



## **Gabonetako Kuadrila Arteko Argazki Rallyan**

saritutakoak dira argazkian kopa eskuetan agertzen direnak. Atzean, berriz, saritutako argazkiak. Ezkerretik hasita, Anton Garay eta Miriam Iriondo Txankakua Merkatari eta Zerbitzarien Elkarteko ordezkariak, Javier Leon (lehen saria), A. Lodoso (bigarren saria), Vicente Guinea (hirugarren saria) eta Ramon Mujika Udal Kirol Teknikaria. Argazki hauek eta txapelketak iraun zituen egunetan aterako beste erretratu batzuek, Txankakua elkarte osatzen duten dendetan ikusgai jarriko dira datorren astetik aurrera.



**San Bartolome Ikastolak** urteroko jaialdia egin zuen joan den ostiralean Olaizaga kiroldegian 1. eta 8. mailako ikasleen partaidetzarekin. Edozein arte eszenikorako trebezia erakutsi zuten ikasleek, antzerkia, dantza, ipuin kontakizunak antzezten eta argazkian agertzen den bezala, modak agintzen dituen azken berrikuntzak pasarelan erakusten ezin dotoreago jardun baitzuten. Honen bidez, Ikastolak eskerrak eman nahi dizkie jaialdia egiten lagundu zuten guztiei.

## ■ Intsumisoen sei epaiketa hiru hilabetetan

Hilaren 26tik martxoaren 27ra bitartean, herriko sei gazte epaituko dituzte Donostiako auzitegian soldaduzkari eta ordezeko zerbitzu sozialari uko egiteagatik. Roberto Ajea ostegunean epaitu zuten eta datozen hilabeteotan akusatuen aulkian jartzera deitu dituztenak hauexek dira: Ander Alkorta eta Iñigo Astigarraga otsailaren 8an, Abel Irizar eta Roberto De la Arada otsailaren 28an eta Jose Manuel Lazarobaster martxoaren 27an. Hauekin 15 dira dagoeneko epaituko dituzten intsumiso elgoibartarrak. Elgoibarko Talde Antimilitaristak gobernuaren burugogorkeria salatu nahi du, “kode penalaren aldaketa ez baitu ezer berririk ekarriko”. Udalaren jarrerarekin ere oso kritiko agertu dira Antimiliak, “hitz onak bai, baina azkenean Udal ordezkarien elkartasuna huts-hutsean gelditzen da. Udalak herriko intsumiso guztiak gogor eta beldurrik gabe defendatzeko konpromezua hartu behar du behingoz.” Sei gazte epaitzeko zorian dauden une honetan elkartasuna adierazteko garaia dela gogorarazi nahi dute Antimiliek, “bai Udalari, bai eta herritar guztiei ere, hilaren 28an, larunbata, izango den manifestazioan parte hartuz”. Manifestazioa arratsaldeko 7etan hasiko da Maalako parketik.

## ■ Mendi ikastaroak

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak hainbat ikastaro antolatu ditu urte osoan zehar burutuko direnak. Eskalada izotzean, eskalada haitzean, mendi irteerak, kainoi jeitsierak, orientazioa, big-wall, glaziarretako alpinismoa, mendiko eskia... eta haez gain, eskolentzako beste aukera batzuk ere eskaintzen dira. 14 eta 20 urte bitarteko gazteei %65eko beherapena egingo zaie ikastaroen zenbatekoan. Izena emateko edota informazioa eskuratzeko 46 14 40ra deitu.

Mari Sol Zabaleta:

## "Ganaduari ere ematen jakon bedeinkatutako San Blasa"

Otsailaren 3a egun ezaguna da denontzat, San Blas eguna. Eta ohitura denez, aurtengoan ere ziur gehienok San Blas opilak jango ditugula. Marisol Zabaletak urte osoan zehar egiten ditu San Blasak. Aitortu digunez, "umiek esaten zien

aber zeatikan jaten genduan urtian behin bakarrik egunero jateko gozua dan gauzia. Horregatik hasi nitzan jan ahala egiten". Amantala jantzi eta irin artean ekiten dio, anis eta laba beroaren usai gozotan, masari botila batez forma ematen.

- Amak irakatsitako egiteko era aldatu al duzu?

- Berdintsua da. Lehen lehengo erreztetia da. Gauza bat ondo dauanian ez dot pentsatzen kanbixau bihar danikan.

- Egunero edukitzeak ez al dio estimaziorik kentzen?

- Ez. Ogixa edo gailetak ere egunero jaten ditxugu eta ez gera asperitzen; San Blasakin berdin. Gurian mutilak estudixatzen egon diazenian, soldadutzan egon diazenian, beti urten dia etxetikan San Blasakin.

- San Blas inguruan badago sinismenik.

- Bai, tradiziua dago. San Blasa bedeinkatu eta egun berdinian jan bihar da, hartara urtian zihar ez da katarrorikan harrapatzen. Baserrixan San Blas opilaz gain itxen genduan beste opil bat ere, ogi masia bezelaxe baina esniakin eginda, gainian azukria eta arraultzia botatzen genion eta hauraxe txokolatiakin jaten genduan San Blas egunian. Badago jendia sinisten ez dabana baina sinisten dogunontzat politxa izaten da. Tradizio onak ez dia galdu bihar, txarrak berez datoz eta.

- Baserrian bada bitxike-



"Sekretorik ez dago. Inportantiena genero ona erabiltzia eta gustura egitea da".

ria bat.

- Bai. Neu baserrikua naiz eta akorduan dakat zelan ganaduari ematen jakon bedeinkatutako San Blasa, bueno opil gozua baino gehixao lehen esan doten beste ogi tipo hori. Zatixak egin eta ganaduak jaten zaban, gaisotasunik ez edukitzeko. San Lorentzon, adibidez, zelan egunero ez zan mezarik egoten, nik, San Blas egunian bertan bedeinkatutako San Blasa eraman izan diuet.

- Zein da zure sekretua?

- Sekreturik ez dakat, neri kalia erreztetia eskatzen dienian, beti ematen dot eta zela itxen doten ikustia nahi dabanak ere etortzia daka. Inportantia da genero ona erabiltzia eta gustura egitia.

- Irudi ezberdinak egiten al dituzu?

- Bai, aldatzen dot. Iaz, Gabonetan, Laboralerako San Blasak giltzen formiakin egitia eskatu zien zuhaitzian ipintzeko eta egin niuen. Behin, semeak esan zien roskilak

egiteko eta, masa berdina hartuta, roskila formia eman eta olixotan frijitzen hasi nitzan. Gozua da.

- Emaiguzu zure errezteta.

- Kilo bat irin, zortzi arraultza, hortik bi zuringo aparte laga, kilo bat azukre eta horri bost kutxarakada azukre zuringo bakoitzeko. Anisa, gatza legamia eta koipia. Lehenengo azukria arraultzekin nahastu bihar da ontzi batian, aluminiozkua ez dadila izan, eta hori irinari gehitzen jako. Anisa bota, legamia, bai eta gatz piskat eta berotutako olixua ere. Masia ondo egin bihar da eta bitartian, zuringuak eta azukria nahastu eta "baño maria"n jarri behar da. Masiakin ordu erdi bat lanian egin eta gero formia ematen hasi bihar da. Labia bero dagoenian bertan sartu eta hamar bat mintu eduki. Zuringuan azukre koskorak igertzen ez diazenian, ondo batidu jaso arte eta gero, labatik ateratuko masian gainera bota. Hozten laga eta kitxo.

- Trukorik?

- Norberak itxiakin ikasten ditxu baina zurin-gua ondo altxatzen ez bada, gogortzen ez bada, opilen gainian jarri eta laban sartu leike, sikatzeko.

## Santa Ageda bezpera degu...

**Aurten ere izango dugu Santa Eskea Mendaroko kale eta baserrietan zehar. Azken bi urteotan bezalaxe, bildutako dirua Mendaroko Dantzarietzat izango da.**

**A**intzinako usadioa bada ere, aldatzen joan da. Hasera batean otordu eder bat egiteko aitzakia bazen ere, urte batzuetatik hona jasotako dirua laguntza gisa ematen da. Sasoi batean Ikastolari ematen zitzaion dirua baina orain dela bi urte Dantzari Taldeari hasi zen ematen. Ohiturak aldatzen direla argi gera dadin hara hona beste bitxikeria bat: garai batean gizonezkoak eta emakumezkoak joan ohi ziren Santa Eskean, gaur egun, aldiz, gizonezkoek bakarrik osatzen dute taldea.

Zenbait iritzi jaso asmoz, talde bitxi honetako partaide batzuekin hitzegin dugu.



### Jabier Urbieto


**53 urte, koplaria**

Goizian baserrietan lasaiago ibiltzen gera eta nahiz eta azkenerako eguna oso luzia egin, biltzen dan dirua Dantzarietzako danez, joan egiten gera. Gainera, herri txikixa izateko diru asko biltzen da.

### Florentino Larrañaga

**48 urte, diru biltzailea**


Anbientia asko gustatzen zait eta gustura jauten naiz, nahiz eta azkenerako nekatu. Jendearen jarrera oso ona da eta dirua dantzarietzako danez gustura joaten gera. Koplaxen eta trikilarixen lana asko baloratzen det.



### Garikoitz Urbizu

**18 urte, soinu-jotzailea**

Gustura joaten naiz ohitura dalako eta dantzarietzat diru iturri on bat. Azkenerako nekatuta bukatzen degu goizetik hasi eta gaueraino ordu asko baitira. Iaz elurretan joan behar izan genuen eta oso gogorra egin zitzaigun. Baserrietako anbientia gehiago gustatzen zait, gainera jendearen borondata oso ona da eta asko eskertzen da trikilaria eta koplarien aldetik. Nire ustetan emakumiak ere joan beharko lirakeke.



## Drogomenpekotasunari buruzko zikloa izango da otsailean

Mendaroko Emakume Taldeak drogomenpekotasunari buruzko ziklo bat antolatu du Udalaren laguntzaz. Hitzaldiz osatutako zikloa da eta hauek otsailaren 7an hasi eta 28ra bitartean luzatuko dira. Hona hemen horien nondik norako zehatza, gaiak, hizlariak eta ordutegia:

### Otsailak 7, asteartea:

“Drogomenpekotasuna”.  
Hizlaria: Deunoro Otero, psikologoa.

### Otsailak 14, asteartea:

“Psikologia ebolutiboa”.  
Hizlaria: A. Loidi, pedagogoa.

### Otsailak 21, asteartea:

“Sexualitatea”. Hizlaria: Amaia Vazquez, sexologo-psikologoa.

### Otsailak 28, asteartea:

“Autoestima”. Hizlaria: Amaia Vazquez.  
Hitzaldi guztiak Mendaroko Kultur Etxean izango dira, gaueko 9etan.

## 1995eko aurrekontu orokorra onartu du Udalak

1995eko urtarrilaren 26an izan zen plenoan, aurtengo Udal Aurrekontu Orokorra onartzea erabaki zen, besteak beste. 114 miloiko aurrekontua onartu zen eta hauetatik 28 miloi, inbertsioak egiteko erabiliko dira. Aurrekontua Udalaren baliabidez osatua dago, inolako mailegurik gabe.

## Santiagoko bidea bizikletaz

Aingeru Gallastegi eta Mikel Garatek Santiagoko bidea bizikletaz egin zuten 1994ko irailean. Pare bat aste iraun zituen bidaiak. Orreagan hasi zuten ibilbidea. Bertan izena eman eta erromes egin zituzten. Meza izan zen eta beraien izenak aipatu zituzten. Orreagatik Santiagorako bideak iraun zuen denboran bi gazteek albergeetan doan egin zuten lo erromes txartelari esker. Santiagotik Finisterrera joan ziren eta handik La Coruñaara. Bertatik trenez itzuli ziren. Argazkian bidaian ezagutu zuten bikote batekin ikus ditzakegu.



## Jubilatuen egoitza

Herriko Enparantzako lokaletan kokatuko den Jubilatuen Egoitza egokitzeko obren adjudikazioaren enkantea arautuko duen plenua onartua dago jadanik. Aipatutako obren aurrekontua 13.500.000 ptakoa da eta bertan, aretoa eta taberna sartzen dira. Obrez gain, egoitzaren ekipamendua ere egingo da, honen kostua 4.700.000 ptakoa delarik. Argazkiak bazkari baten osteko dantzaldia erakusten digu.

## ASPALDIKO KONTUAK

### *Sasiko-potzu*

**T**xiki-txikitandik ohitura genduan. Garizuma sarre-ran egiten zan festa hau. Ordura arte erromerixak zeuden baina handik aurrera Garizuma pasatu arte ezin zan festarik egin. Orduan ortura juaten ginan, aitxa, ama eta anaiekin, Atxarrera. Aitxak sua itxeko zotzak ekartzen zitxun eta amak zartaina, tortilia, naranjak, urdaixa, txorixua eta gehixao. Oso ondo pasatzen gendun familixan, kontuak esaten, jaten eta barrez. Herri guztiak egiten zaban, bakoi-tzak bere airera, mendixan.

Zaharrauek, berriz, zazi-ko-potzu Santa Kruzen itxen zebeu, denek batera, lagunak, neskak eta muti-lak. Gero, iluntze aldera Santa Anatik behera bajatzen zian kantuan.

Behin, Itxasuetako txabol-an egin genduan zazi-ko-potzu. Bertan geundela Berasaluzeko Juan Jose eto-

rri zan ardixak erretiratze-ra. Gu lotsatuta bazter batian jarri ginan. Bera guregana etorri zan eta hantxe egon ginan berri-ke-tan. Iluntzian jaitsi eta frontoira jun ginan, erro-merixara.

Gure umiak hasi zira-nian zaziko-potzu zer zan galdetzen zebeu eta guk zazixan azpiko potzua zala esaten gendun. Guri, mendixan, zazi eta potzuen artian egiten zan jaixa zala-ko izen hori ipini ziotela esan ziguten.



*Dionisio Barroso*  
Kilimoiko "jefia"

- Noiztik bizi zera Euskal Herrian?
- Orain dela 33 urte etorri nintzen.
- Zertara?
- Lan bila.
- Ba al duzu herri-minik?
- Hemen oso gustura nago baina noizean behin akordatzen naiz nire herriaz.
- Kilimoiarri laguntzen noiztik?
- Orain dela 20 urtetik.
- Zein ekipotakoa zara?
- Denak gustatzen zaizkit baina ez daukat ekipa konkreturik.
- Zer egingo du Kilimoiak aurten?
- Nire ustez igo egingo da.
- Aldatuko al zenizkioke Kilimoia-aren kamisetari koloreak?
- Ez eta pentsatu ere!
- Zein afizio duzu?
- Arrantza egitera joatea.
- Zein arrain arrantzatzen dituzu?
- Edozein, irteten direnak.
- Zure herrira bueltatzeko asmorik?
- Mementuz ez, nire bizia hemen egina baitago.

## Mikel Fernandez

### Euskal Herriko zuhaitzetan barna

**Badugu oraindik Euskal Herrian aintzinako ohiturak atsegin eta jarraitzen dituenik, egurrean lan eginaz barne aberastasuna zabaltzen duenik. Gogoz lan**

**eginaz, artisau mundu zailean sartzen ari den gaztea da Mikel Fernandez. Bere lokaltxoan aurkitu dugu, honako solasaldi hau burutzeko prest.**

4



■ **Zenbat denbora daramazu egurrekin lanean?**

- Egurrekin hiru urte baino gehiago, baina tailarekin urtebete.

■ **Non ikasi zenuen artisautza?**

- Arte Eskolan hasi nintzen ikastaro bat eginez. Bertan euskal taila eta antzekoak ikasi nituen baina dakidan guztia nere kontura ikasi dut, gehiena behintzat, liburuak irakurri eta abar.

■ **Zergatik egurra eta ez beste**

**edozein materiale?**

- Biziki atsegin dudalako. Noblea, naturala eta Euskal Herri inguruan daukagun materialea delako.

■ **Zein lan egiten dituzu egurrekin?**

- Denetik: kutxak, argizaiolak, koadroak, erliebea, estatuak... Sormena lantzen dut, ez zait gauza batean finkatzea gustatzen. Barnetik irteten den aberastasunari forma ematen saia-

tzen naiz.

■ **Zer da betidanik egin izan duzuna?**

- Edozer, baina beti dimentsio haundiekin, gauza handiak.

■ **Afizioa ala ofizioa da?**

- Lan honetan ibiltzeko izugarriko afizioa behar da. Jende askok uzten du bide erdian, lan asko egin behar baita. Gainontzean, Euskal Herrian saldu daitezke horrelako gauzak eta badirudi Japonen ere ahal dela. Hala ere, zaila da honetatik bizitzea.

■ **“Tocar madera” esaera zer da: sinismena, topikoa ala egia?**

- Topikoa soilik.

■ **Beste afiziorik?**

- Artearekin erlazionatuta dagoen edozer. Baina aurrekontu murriztua daukat eta beharbada egurra merkeena delako hartu nuen, ez da materiale hain garestia.

■ **Etorkizunari begira?**

- Nere burua perfektionatu nahi dut. Halere badut beste nahi bat, hala nola, euskaldunok ahaztua dugun aintzinako ohitura polit hau berreskuratzea, aintzinako kutxa eta argizaiolak alde batera utzi baititugu gauza modernoak hartuz.

kiliBARREN

**Kolaboratzaileak:** Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Alaitz Vives.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua



## Lourdes Beneitez

### Eroskiko harakina

● **Zenbat urte Eroskin lanean?**

▶ Hamabost urte, datorren hilabetean hamasei egingo ditut.

● **Zer erosi ez dakien jende asko**

**etortzen al da?** ▶ Gehienek zer dugun ikusi ondoren aukeratzten dute, baina badira listarekin etortzen direnak ere.

● **Zein da haragirik goxoaena?**

▶ "Tajada enpanatua" da niretzat gustukoena.

● **Haragia ala arraina?** ▶ Etxetik kanpo arraina, baina etxean errazenera jotzen dut, haragira.

● **Hil bukaerak igartzen al dira?** ▶ Bai, jendea beti bezala ibiltzen da, baina dirua askoz justuago dute, gehiago kontrolatzen dute.

● **Lan honen alderik txarrena?** ▶ Produktuak prestatzea eta jasotzea, oso luze joaten da.

● **Eta onena?** ▶ Onena, jendearekin duzun harremana, saltzen oso gustura sentitzen naiz.

● **Lanean, zer da luzeago, goiza ala arratsaldea?** ▶ Arratsaldea, denda itxi behar denean, dena jasotzeak asko luzatzen du.

● **Gizon asko etortzen al da erosketak egitera?** ▶ Beno, gizonak ere hasi dira etortzen, lehen baino gehiago datoz. Mostradorean lau bezero eta denak gizonaezkoak izatea ere tokatu zait.

● **Ordutegi berri bat jarri omen duzue, gustura al zaudete?**

▶ Langile bezala ez, larunbat arratsaldean lan egitea ez dugu gustuko, baina kontsumitzaile aldera hobe, Eroskik zerbitzu gehiago ematen du.

● **Asteko egunik onena?** ▶ Orain arte larunbata, baina orain lan egite honekin...

● **Zenbat urte edukitzea gustatuko litzaizuke?**

▶ Daukatenarekin ongi nago, oso gustura nabil.

● **Hil ondoren zer?**

▶ Ez dakit, pakea edo, "a saber". Ez da inor handik bueltatu, beraz...

● **Lanpara majiko bat aurkituko bezenu kalean, zein hiru desio eskatuko zenituzke?**

▶ Osasuna, elkar arteko errespetua eta zoriontasuna.

● **Bukatzeko, bezeroak beti al du arrazoia?** ▶ Beno, beti ez.

Batzutan, zeure ikuspuntua ematen diozu era polit batean baina sarritan isildu beharra daukazu.



JOSEBA GOROSABEL

## ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK

### DOINUA:

Nafarroako mendietatik

Aurten ere bai rekor berria

daukagula partaidetan

eta lan denen kalitatea

igoa dela benetan

Gazte jendeak gauza hauentzako

egiten dugu nahiko lan

nahiz ta laurehun partaidetatik

hamabi bat sari eman.

Zaletasuna igotzen doa

hori dela nabaria

eta aurtengo txapelketa hau

adibidea garbia

Gero ta lan gehio jasotzea

ez al da zoragarria

ea hurrengo urtean dugun

beste errekor berria.



KEPA MENDIKUTE

# Larrua jo nahi baduzu,

# BURUA eta KONDOIA erabili.



## Zergen igoeraren aurka 1068 sinadura jaso ziren

Joan den urteko urriaren 27an izan zen plenuan ordenantza fiskalak, zergak, %4,5 igotzea erabaki zen, eskualdeko beste zenbait herritan hartutako erabakiaren antzeko igoera.

**H**errian nahikoa zalaparta sortu zuen aipatu igoerak. Izan ere, herritar batzuek honen aurrean zerbait egitea erabaki zuten. Zaharren Biltokian bilera bat izan zen hosteleritzako partaideak, merkatariak eta etxeoandreak elkartu zirelarik. Tasak gehiegi igotzen ari zirela eta sinadurak jasotzeari ekin zioten honela, Udalak erabaki hura birplantea zezan. Hiru egunetan zehar orriak banatu ziren eta guztira 1.068 sinadura jasotzea lortu zuten. Idatzian uraren eta zaborren zergen igoera salatzen zen, bi urtetan %57 igo baitira, bai eta Ekintza Ekonomikoaren Zerga ere. Sinadurak Udaletxe-



■ ■ 1994ko urriaren 27ko plenuan erabaki zen zergen igoera.

an aurkeztu eta Hazienda zein Gobernu Batzordeetan gaia eztabaiatu zen. Hazienda Batzordeko lehendakaria den Merche Mugicaren esanetan, “herritarren idatzia geizki planteatua dago. Ekintza Ekonomikoaren Zergari dagokionean, iazko batzbestekoarekin konparatuz gero,

aurten %5 bakarrik igoko da”. Era berean, azaldu zuenez, “Elgoibarren beste inon baino gutxiago igotzen dira tasak. Gainera, merkatariekin izan genuen bilera bat eta ez zen inor kexatu”.

## Animalieri buruzko zenbait ordenantza

Aste honetan Kexen atalera txakurreri buruzko kexa bat iritsi zaigu. Hori dela eta, iaz Udalen plenoan onartu zen animalien jabetzari eta babesari buruzko ordenantzaren zenbait artikulua azalduko ditugu, animaliek leku publikoetan egotean bete behar dituzten arauak buruzkoak, hain zuzen. Hona hemen horietariko batzuk:

■ Jendea ibiltzen den bideetan txakurrek korrea eta lepokoa eraman behar dute. Bozalaren erabilera udal Agintariek erabakiko dute komenigarria uste dutenean.

■ Ezin dira janaria egiten, gordetzen edo saltzen diren tokietan sartu, ez eta kirol, kultur edo ikuskitun lokaletan, pistina edota osasun zentroetan ere.

■ Toki hauek debekua zehazten duen txartela jarri behar dute ongi ikus dadin.

■ Hosteleritzako jabeek animalien sarrera debeka dezakete eta sartzeko utziz gero, animaliak korreaz lotuak eta identifikatuak behar dute egon.

■ Igogailu batean animalia eta jabeaz gain jende gehiago badoa eta hauek animalia beraiekin igotzea nahi ez badute, jabeak eskakizuna bete behar du eta ondoren igo beharko da.

■ Garraio publikoetan ezingo dira joan ez badago beraientzat txoko berezi bat. Taxien kasuan, gidariaren esku geratzen da.

■ Itsuak gidatzeko txakurrek ez dituzte aurreko debekuak bete behar, janaria saltzen edo egiten den tokietara sartzeari dagokionean ezik eta, animalian gasiotasun, garbitasun falta edota agresibitatea azaltzen ez duen artean.

■ Txakurren kakak bide eta plaza publikoetan uztea debekatzen da. Toki egokietara eraman behar



A. AGIRREZABALA

dira txakurrak beharrak egin ditzaten. Jendea dabilen tokietan kaka eginez gero, jabearen esku dago berau bertatik jasotzea.

■ Animaliek leku publikoetan gaitzen bat sortuz egro, jabearen erantzukizun osoa da.

## Santa Klarako aldare nagusiko erretabloa (II)

- Gaurkoan, arte ezaugarriak aztertuko ditugu.
- Santa Klara monastegi zaharraren aldare nagusiko erretabloa absidearen erdi puntuko arku itsuaren kontra zegoen, berorren hormari egokitua. Nabetik hiru harmailez igoa, sabairaino luzatzen zen eta nabearen zabalera berdina zeukan.
- Materialeari dagokionez, ensanblajea edo mihizadura haritz edo gaztainondo egurrezkoa da eta moldurak eta apaingarriak intxaurrondo zurezkoak. Sei zutabeak intxaur eta haritzondo egurrez eginak daude eta kapitela zein apaingarriak intxaurrondoak. Zokaloa egurrez eta apaingarriri lodiz egin zuten.
- Sei zutabeek hiru esparrutan banatzen zuten erretabloa, erdiko eta alboetako kaleak eratuz. Erdikoa zen nagusia, mugatzen zuen arkuaren erdiko atala osatzen baitzuen.
- Erdiko kaleak aldea zuen zokaloaren aurrean, gainean sagarioa eta honen gainean bi nitxo. Beheko nitxoan Andra Maria Sortzez Garbiaren eskultura (monastegiko zaindaria) zegoen eta goikoan Santa Klara, moja klaratarren sortzailea eta "ama". Tailak nitxoaren arkuari eta erretabloari oso ondo egokituak zeuden.
- Alboetako kaleek ere nitxo bana zuten. Eskubikoan San Antonio eta ezkerrekoan San Frantzisko agertzen ziren. Bi hauek 1976. urtera arte egon ziren



erretabloan, igeltsoz eginak zeuden eta estiloz beste biekin alderatuz ezberdinak ziren.

- Lau eskultura hauengandik Izpiritu Santuaren sinboloa gailentzen zen erretabloan. Sabaitik (zeruaren sinboloa) eta armazoitik zintzilik zegoen. Kristau dogmaren iherarkian bera da nagusia eta erretabloak eskaintzen zuen ikonografia eta kristau ikasbidea zentzuz betetzen zuen.
- Havezaz gain aingeruak ere bazeuden. Erretablo guztia erabat dekoratua zegoen: pilastra, zutabe, nitxoak... Gai dekoratiboak berriz: landareak, kapiteletako kiribildurak, lorontziak...
- Armazoiak suntsitu bazen ere, gaur egun Santa Klara eta Andra Maria Sortzez Garbia komentu berriko kaperan ikus ditzakegu.

PELLO ARRIETA

## Adolfo Arana

(1914-1993)



- 1914. urteko apirilaren 5ean jaio zen. Jaiotzez eibartarra zen arren, Plaentxiko Irure baserrian hazi zen.
- Elgoibarren ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituen, hauetariko bat Jose Luis Arana sukaldari ezaguna.
- Plaentxiko arma fundizioan egin zuen lan lehenik eta gero, Jarbe "Arana y Uribe" lantegian. Mekaniko arduradun lanak betetzen zituen hemen.
- Ehiza eta arrantza asko gustatzen zitzaizkion, baita brikolaia ere. Mendizalea ere bazen.
- Biar-Dana elkarteko bazkide zen, eta bertakoen artean pertsonaia oso ezaguna.
- Duela urte t'erdia hil zen, 1993. urteko abuztuaren 30ean, hain zuzen.

## ARKO (Arrasate Press eta Arrasate Telebista)k Erredaktore buru bat behar du:

### ■■■ BALDINTZAK ■■■

- Kazetaritza eta herri komunikabideetan esperientzia.
- Euskara maila ona.
- Gidatzeko karneta.

### ■■■ BALORATUKO DENA ■■■

- Arrasate ezagutzea.
- Harremanetarako gaitasuna.

### ■■■ LANPOSTUAREN ■■■

#### ■■■ BETEBEHARRAK ■■■

- ARRASATE PRESSEko zuzendaritza eta ARKOko medioen erredakzio buru.

■ KURRIKULUMAK ■ Epea: Otsailaren 15a • Helbidea: Azoka kalea, 1. 20870 ARRASATE • Tel. (943) 77 08 15

## MOTZAK

### Patxi Arriolari omenaldia egingo dio La Union-ek

La Union arrantza eta ehiza elkarteak berriki Oilagorren Estatuko Txapeldun izan den Patxi Arriola ehiztariari afari-omenaldia egingo dio datorren ostiralean, otsailak 3. Afaria La Union elkarteko egoitzan, Urasandiko Kalamua kaleko 21ean izango da iluntzeko 9etan. Afarira joan nahi duenak bi eratan eman dezake izena: elkartera bertara joanez edo 74 22 38 zenbakira arratsaldeko 7,30etatik 8,30etara bitartean deituz. Izena emateko epea hilaren 31n, asteartea, bukatuko da.

### Emakumeentzako defentsa pertsonalerako ikastaroa Kiroldegian

Olaizaga kiroldegiak emakumeei zuzendutako defentsa pertsonalerako ikastaroa antolatu du larunbat honetatik, hilaren 28tik aurrera. Sei larunbatetan segidan, goizeko 10etatik 12etara bitartean, izango dira klaseak. Luis Agirregomezkorta karate irakaslearen eskutik, egoera traketsen aurrean norberaren jarreraren kontrola eta erasoei aurre egiteko gure gorputzaren eta eguneroko tresnen erabilera landuko dira. Luis Agirregomezkorta karate irakasleak hirugarren dan izendapena dauka gerriko beltzen barruan. Izena emateko Kiroldegiko 74 13 61 telefono zenbakira deitu.



Jose Luis Gonzalez:

### "Liga Nazionalera igo gaitzke aurten"

■ **Noiztik areto futbolean?**  
- Elgoibarren bi urte baina eskolan betidanik.

■ **Iaz Gipuzkoako selekzioan izan zinen.** - Bai, hemendik hiru joan ginen. Entrenamenduetan izan ginen eta azkenean neu bakarrik geratu nintzen. Gasteizen jokatu genuen txapelketa bat, Arabako eta Bizkaiko selekzioen aurka.

■ **Zer moduzko esperientzia izan zen?** - Gauza berri bat izan zen. Maila ona zegoela ikusi nuen. 23 urtetik beherako selekzioetakoak ginen denok, eta asmoa horien artean Euskadiko selekzioa osatzeko jendea hautatzea zen. Aurten oso zaila izango da, jende oso ona dago. Deituko banindute ez nuke ezetz esango, noski.

■ **Nola zoazte ligan?** - Zortziko taldeak egin dira aurten eta bigarrenak geratu gara. Orain beste zortzi talderen aurka ari gara eta ondo goaz. Kanpoan berdindu egin dugu eta Liga Nazionalera igotzeko aukera izan dezakegu.

■ **Igotzeko oztoporik nagusia dirua izango da, ez?**

- Bai, dirua arazo bat da. Takilatik ateratzen dena ez da asko eta laguntza gehiago beharko genuke. Aurten dena den, laguntza gehiago etorri zaigu baina beste talde batzuekin kon-



paratuz eskas xamar gabilta, ekipamendu aldetik esaterako.

■ **Zer du areto futbolak, futbolarik ez duena?** - Areto futbolean jokua jarraitua da eta bizkorragoa, eraso gehiago dago. Atera jaurtikitak ugariagoak izaten dira eta zelaia ere erabat ezberdina da.

■ **Agian futbolak duen laguntza falta zaio.** - Futbolaren "anaia pobrea" dela esango nuke. Jende gutxiago erakartzen du, lagun arteko gauza modura ikusten da. Betikoak gabilta hemen bueltaka, eta batzuek urte asko daramate. Lanetik irten, entrenatzera etorri eta taldeez arduratu izan dira urteetan. Horiek alde egiten dutenean... jokatzeari lagatzen dion norbaitek hartu beharko kargua.

■ **Zein mailatan dago Elgoibar?** - Inguruko jokalaririk onenak herrian daude eta bailarako talderik onena ere bertan daukagu.

■ **Jokatu duzun partidurik zailena?**

- Hemen jokaturiko azkena, donostiarren aurka. 4 eta 3 irabazi genien. Beraiek gaizki portatu ziren lehena-gokoan eta, hemengo "mendeku" modukoa izan zen.

• **Adina: 23.**  
• **Errealzalea ala Athleticzalea? Errealzaleagoa.**  
• **Jokalaririk bat: Pablo Roberto areto futboleko eta bestela, Laudrup.**  
• **Desio bat? Zaletuak ikustera etortzea.**



*Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu  
BARRENEK sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak  
edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*

# Diego Garciak krosean korrituko du ia ziur

Diego Garcia korrikalari azkoitiarrak, 94an Helsinkin Europako txapeldun ordea izan denak, otsailaren 5ean izango den Mugerza Memorialean korrituko du ziurrenik. Notizia Diego Garciak berak konfirmatu ezin badu ere, litekeena da Elgoibarren korritzea. Martin Fiz, berriz, ez da Elgoibarren izango Kluben arteko Europako Txapelketa korrituko baitu.

**D**iego Garciak, Europako txapeldun ordea, Mugerza krosean korrituko du baldin eta atzerrian, berarentzat egokia goa den maratoi erdirik topatzen ez badu. Orkatilean izandako inflamazioa sendatzen ari zaiola esan digu eta hortaz, Elgoibarren izatekotan, lehen 8 postuetan sar daitekeela gaineratu du.

Ego-Tokikoek lasterkari atzerriarren izenik ematerik izan ez badute ere, puntako korrikalariak bertan izango direla aurreratu digute. Keniatik zazpi etorriko dira, guztiak punta-koak. Marrokiarrak bi, eta ingelesa bakarra, denak denbora onak egin dituztenak. Portugaletik etorritako bik ere parte hartuko dute eta berrikuntza modura, lehen aldiz Tanzania-ko korrikalari bat izango da. Estatutik Alejandro Gomez, Antonio Serrano,



■ ■ Diego Garcia, Martin Fiz eta J. M. Garcia iaz, harmailetatik krosa ikusten.

Carlos Adan, eta oraindik ziurtatu gabe badago ere, Antonio Juzdadok korrituko dute. Nesketan Julia Vaquero eta Estela Estevez ez dira Elgoibarren izango Europako txapelketa korritzera doaz eta. Natalia Azpiazu gipuzkoarra lasterketan izango dela ziurra da eta honekin batera, keniar bat, ingeles bat eta portugaldar bat arituko dira.

## Astelehenean, ongietorria

Ego-Toki Elkartek astelehenean emango die ongietorria LII. Memorial Juan Mugerza -Gran Premio Patxaran Zoco Nazioarteko Txapelketan parte hartuko duten korrikalariari. Arratsaldeko 7etan hasiko den ekitaldian Ego-Tokiko kideak, Zoco etxeko

patrozinatzaileak, Jose Inazio Elkoro-Iribe alkatea, manager-ak eta Jaurlaritzako eta Aldundiko ordezkariak Udaletxeko Biltzar Aretoan bilduko dira korrikalariari harrera egiteko. Ondoren afaria izango dute Ego-Toki elkartearen. Antolatzaileek ekitaldira joatera aimatu nahi dituzte herritar guztiak.

## Lasterketak

Oraindik erabat ziurtatuta ez dagoen arren, goizeko 11:00etan junior emakumezkoen lasterketa korrituko da, 11:30etan mutilen junior lasterketa, 12:10etan emakumezkoen senior-promesa lasterketa eta 12:45tan gizonezkoena. ETB telebista kateak zuzenean eskainiko du

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan Larunbata 28

10,45: Elgoibar - Aitzgorri (Kadeteak)

12,15: Elgoibar - Mondragon (Neskak)

17,00: Haundi - Alaves

### Igandea 29

10,00: S. D. Eibar - Tolosa (Kadeteak)

12,00: Elgoibar - Sporting de Herrera (Jubenilak))

15,00: Urki - Zestua (2. errejionala)

17,00: Elgoibar - Kilimon (2. errejionala)

### ESKUBALOA Kiroldegian Larunbata 28

16,00: Elgoibar - Leizaran (Jubenil mutilak)

17,30: Elgoibar - Usurbil (Kadete neskek)

### Igandea 29

12,00: Txankakua Elgoibar - Ordizia (Senior mutilak)

### FUTBITOA Urasandin Igandea 29

10,00: La Maxia - D. Kalimotxo Replastisa - Aldavas

11,00: Rua - King-Kong G. Garcia - Dream Team

12,00: San Roketarra - Kosakos Ametsa - Oraiko Cafe

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Aurrera Vitoria 1 - Haundi 0  
Gazteak 2 - Elgoibar 9 (2. errejionala)  
Intxaurdi 5 - Elgoibar 2 (Neskak)  
Bergara 2 - Elgoibar 1 (Kadeteak)  
Urola 0 - Elgoibar 0 (Infantilak)  
Elgoibar 0 - Urola 0 (Jubenilak)

### ESKUBALOA

Zarautz 11 - Pagoaga Elgoibar 19 (Kadete neskek)  
Elgoibar 30 - Bidebieta 15 (Kadete mutilak)  
Bidebieta 24 - Elgoibar 21 (Jubenil mutilak)  
Elgoibar 15 - Usurbil 23 (Senior neskek)  
Beasain 20 - Txankakua Elgoibar 17 (Senior mutilak)

### XAKEA

3. maila Azkoitia 4 - Elgoibar 0  
2. maila Eibar 0 - Elgoibar 4

### FUTBITOA

Berrogei Duro 6 - resto del Mundo 1 Tropiko 0 -Hunde Verboten 4  
Gruas Pana 3 - Fotero 1 Lucky Luke 4 - U. de Chile 4  
Karkis 2 - Mimox 1 Pedruskos 4 - Sporting 3

## FASEG, S.A.:

### Fundiziorako modeluen fabrikatzaileak

Lehenago fundiziorako modelu lanetan ibilitako lau lagunek enpresa propioa sortzea erabaki zuten. 1970. urtean Autonomia kalean 1000 m<sup>2</sup>ko lokala erosi eta fundiziorako modeluak fabrikatzeari ekin zioten. Faseg S.A. izeneko enpresak lehen urratsak eman zituen.

**M**odeluak egiten dituztela esaterakoan, metalezko edo beste materiale bateko piezak fabrikatzeko erabiltzen diren modeluak egiten dituztela ulertu behar da, eta ez bestelako modeluak. Haserako modeluak egurrezkoak ziren bakarrik. Gero erre-txinezkoak, metalezkoak eta serie handietarako modeluekin jarraitu zuten, eta gaurregun, oraindik orain, aipatu mota guztietako modeluak egiten dituzte, egurrezkoak barne. Egurra fundiziorako erabiltzea aintzinatekoa dela iruditu arren, J. San Martin gerentearen ustez, egurrezko modeluek urte mordoska iraun dezakete oraindik. Serie txikiko modeluak egiteko erabiltzen da egurra.

Azken aldian ia 40 milioi pta gastatu dute serie handiko modeluen fabrikaziorako puntako teknologia erabiltzen duten makinetan. Makina arruntak ezezik, kontrol numerikodun makinak ere badituzte Faseg-en. Azken berrikuntza, ordea, kalitatearen kontrolerako erosi duten ordenadore bidezko hiru dimentsiotako makina berifikatzailea da. Kalitate kontrolean hiru dimentsiotako makina erabiltzen duen bakarrenetarikoa da Faseg. Beste berrikuntza aipagarri bat, epe laburrean CAD/CAM diseinu sistema erabiltzeko duten asmoa litzateke. Modeluez gain, grabitate horkilak dei-tzen diren fabrikazioan ere aritzen



dira.

Bezeroaren eskari-aren arabera egiten dute lan. Piezaren planotik abiatzen dira modeluak eta moldeak egiteko. Horregatik funtsezkoa da langile guztiek diseinuari buruzko ezagutzak izatea.

Fabrikatzen dituzten fundizioko modelu gehienak automozioaren



■ ■ J. San Martin gerentea. Goian, 3 dimentsiotako makina

sektorean erabiltzen diren piezak egiteko dira. Bezeroak Euskal Herrian zein Katalunian dituzte banatuta, eta atzerrian, Frantzia da bezero nagusia. Dena den, bertako moldeetan egindako pieza gehienak atzerrira eramaten dira.

Fundizioa, ekonomia aldetik, asko sufritu duen sektorea da, azken urteotan batez ere. Horrek izan du eraginik enpresa askotan baina Faseg-ek adibidez, gorantz egin du azken aldian, lehen aipatu bezala inbertsioen atalean batez ere. Dena den, merkatuak esango du enpresa batek aurrera ala atzera egingo duen.

#### ENPRESAREN FITXA

- ✗ **IZENA:** FASEG, S.A.
- ✗ **SORRERA URTEA:** 1970
- ✗ **SORTZAILEAK:** Jesus San Martin, Ezequiel Marcos, Fco. Ibañez eta Gabriel Sabando.
- ✗ **GERENTEA:** Jesus San Martin.
- ✗ **IHARDUERA NAGUSIA:** Harezko fundiziorako modeloen fabrikazioa.
- ✗ **LANGILE KOPURUA:** 16
- ✗ **ESPORTAZIOAK %tan:** % 15a
- ✗ **HELBIDEA:** Autonomia kalea 8
- ✗ **TEL/FAXA:** 74 06 61/ 74 32 04/ 74 17 09

## Orain taldeak "Modigliani" lana antzeztuko du

Donostiako Orain antzeztaldeak Dennis McIntyre ingelesaren idatzian oinarritutako "Modigliani" antzezlana aurkeztuko du Herriko Antzokian datorren hilaren 3an, gaueko 22,15etan. Orain taldeak, euskal antzerkigintzan dabilen talderik zaharrenetarikoa, Modigliani pintorearekiko mirespena azaltzen du lan honetan.



**M**odigliani, Pariseko "maudt" edo "out-sider" deitzen diren horietako bat zen, pintore bohemioa, gizartearekin apurto nahi zuena, libre izateko borondatea zuen artista. Izakera honek Orain taldeko kideak erakarri zituen eta Dennis McIntyre-n testua hartuta, ikuskizun bihurtu zuten. Modigliani pintorearen inguruan, garaiko pertsonaiarik esanguratsuenak agertzen joango dira: Chaim Souline, Maurice Utrillo, Leopold Zborowski, Modiglianiren maitalea zen Beatrice Hastings eta Guillaume Chéron. Pintorearen bizitzaren unerik gogorrenak eta

zailenak erakusten ditu antzezlana. Modigliani poliziarengandik ihesi dabil eta babes bila lagunengana joko du. Errealitatean ordea, bizi duen desenkantatu eta frustraziotik ihesi dabil, artearen merkantilizaziotik eta arte saltzaileengandik ihesi. Istorio honetan Modiglianiren bizitzan nagusi izan ziren maitasuna, askatasuna eta konfliktuak ere azalduko dira.

Antzezlana gazteleraz aurkeztuko du Orain Taldeak. 1968. urtean konpainia independente modura jaioetakoa talde honek haurrentzako euskarazko zortzi muntaia egin ditu eta beste hogeita bat gazteleraz.

### FITXA TEKNIKOA

**"Modigliani", Dennis McIntyre. ORAIN taldea**

- ▮ Zuzendaria: Maribel Belastegi.
- ▮ Antzezleak: Enrique Diaz de Rada, Niko Lizeaga, Fermin Sanles, Jokin Conde, Alberto Arizaga, Iñake Irastorza eta Juan Maria Segues.
- ▮ Lekua: Herriko Antzokia.
- ▮ Ordua: 22,15.
- ▮ Iraupena: 1h eta 45 minutu
- ▮ Sarrera: 300 pta.

Urte Zobel auzoa  
ZALDIBIA

☎ 16 13 59 - 88 47 98



◆ **TXOTXEKO SAGARDOA urte guztian (astelehenetan itxita).**

◆ **NORBERAK ERAMANDAKO JATEKOA bertan prestatzeko aukera.**

◆ **AURREZ ENKARGUAK hartzen ditugu.**

◆ **JOAN-ETORRIRAKO AUTOBUSAK antolatzen ditugu.**

*Sagardotegia*

# TXERTAKADI

# AULIA

SAGARDOTEGIA

Legorreta ☎ 80 60 66



San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

# "Ipuinen enkantua bukaera librietan dago"

17 urte ditu eta hiru txapel. Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketara hiru aldiz aurkeztu da eta beste horrenbeste bider lehen saria jaso du. Aurten, gainera, lehenengoa ezezik bigarrena ere jaso du Ane Ulaziarekin erdibana. "Esne Berriketari" eta "Ahur bete biharamun", hara hona Luziaren aurtengo bi ipuinen izenburuak.

■ **Aurkeztu eta txapela hartu.**

■ Bai, hirugarren aldia da. Lagunak esaten didate datorren urtian ez presentatzeko eta etxian ere oso pozik daude.

■ **Gogoratzen al dituzu umetako ipuinak nola hasten zenituen?**

■ Ez naiz akordatzten idazten noiz hasi nintzen ere. Baina gogoan daukat zela txiki txiki nitzala, aitzari negarrez esaten nion irakurtzen ikastia nahi nabala komikixak eta ipuinak irakurtzeko. Ikasi nabanian laurhun aldiz irakurtzen naban komiki berdina, jan egiten nitxuan.

■ **Ipuinak lehiaketarako idazten al dituzu?**

■ Bueno, egixa esan idatzi naban lehen ipuina, "Inongo ilusioa", lehiaketara aurkeztu naban, orain dala hiru urte, eta lehenengo premixua irabazi

naban. Horrek asko animatzen dau eta aurrera jarraitzen duzu. Hala ere, aurten lehenengo premixua irabazi daban ipuina udan idatzi naban eta kasualitatez okurridu jatan bidaltzia, ze lehiaketarako "Ahur bete biharamun" nakan idatzita, bigarren saritua.

■ **Euskara batua iruditzen zaizu, halere hiztegiara jo behar da zure lan batzuk irakurtzerakoan.**

■ Hizketan esaten duguna sinplea da eta etxean, kalean, lagun artean erabiltzeko nahikoa dugu. Baina literatura egiterakoan, zerbait esan nahi duzunean askotan hiztegiara jo behar da, normalean erabiltzen ez ditugun hitz horien bila.

■ **Superstiziorik idazterakoan?**

■ Beti idazten dot boligrafo beltzakin, beti beti. Pasatu izan jata urdinakin hasi eta ezer ez urtetzia, beltza hartu eta, derrepentian idazten hastia.

■ **Maitasun gaiak ez dituzu gehiegi lantzen.**

■ Gehixegi ez dakit. Me va de pena! Ez, gainera



zaila iruditzen jata. Ondo neurtu bihar dira maitasun gaiak ze bestela zozeogi eta kursiegi geratzeko arriskua baitago.

■ **Bukaera nahiko libreak dira, ez?**

■ Bai, ez jata gustatzen dana eginda ematea. Zinera juten naizenean ere beti imaginatzen dot pelikulia bukatu eta gero zela jarraitxuko daban istorio horrek. Enkantua norberak bere bukaeria ematian dao.

■ **Zergatik idazten duzu?**

■ Mordo bat gustatzen jata, ez da jenixo bat naizela eta urten itxen jatala. Gero lagunek irakurtzen dabenian esaten die ez dabela ulertzen baina...

■ **BBBko hirugarren mailan zaude, eta gero?**

■ Dibujoa asko gustatzen jata eta matematikak ere pila bat. Argi daukat zientzietatik joko dudala.

■ **Hurrengo ipuina noizko?**

■ Momentuz deskanso! Gainera nahikoa lan daukagu eskolan, tarea pila bat bidaltzen digute etxean egiteko. Beraz, udara arte edo...





## Garajeak

Marradun GARAJE BAT saltzen dut. Santa Ana 6.

☎ 74 02 81

9etatik aurrera

GARAJE BAT saltzen dut, ganbara eta guzti "Anaiak" edifizioan. Prezio onean.

☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

GARAJE ITXI BAT alokatzen dut Santa Ana 46 zenbakian.

☎ 74 13 67

## Salerosketak

BIZIKLETA ESTATIKO BAT erosiko nuke.

☎ 75 15 14

BI BMX KLASEKO BIZIKLETA saltzen ditut. Bata Peugeot markakoa, oso ondo zainduta, eta bestea Huch (USA) markakoa: kuadro orijinala, bakarra, frenoak, llantak eta manillarrak erregalatu.

☎ 74 34 05

MENDI ZATI BAT erosiko nuke pinua sartzeko edo sartuta badago ere bai.

☎ 75 61 86

AEG markako erropa lehertzeko SEKADORA BAT saltzen da. Berria dago.

☎ 74 34 06

Randy markako PATIN BATZUK (bi errobera aurrean eta bi atzean) saltzen dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.

☎ 74 17 60

ARGAZKI KAMARA BAT SALGAI. Yashica 108 Reflex Multi/Program 35-70 Zoom. Flash-a eta funda opari gisa. Egoera oso ona eta prezio oso merkea.

☎ 74 18 61

VOLKSWAGEN GOLF GTI 16V. (SS-AF) SALTZEN DUT. Prezio interesgarria.

☎ 74 42 59 Jose Mari

"Silver Cross" markako KOTXE KAPOTA BAT saltzen dut. Oso ondo dago.

☎ 74 11 28 Juani

☎ 74 20 77 Gloria

NINTENDO KONSOLA ETA 6 JOKU saltzen ditut. Prezio onean.

☎ 74 13 97

8,30etatik aurrera

Desmontatu daitezkeen APAL METALIKOAK saltzen dira. Egoera onean.

☎ 74 01 75

Castellano estiloko LOGELA BAT saltzen dut. Ohea, 1'35; armarioa, bi mahaitxo eta tokadorea ispiluarekin.

☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

## Etxebizitzak

ETXEBIZITZA BAT alokatuko nuke.

☎ 74 14 63

LOKAL BAT daukagu alokatzeko Ermuaranbiden 16 - 2. solairua. 325 m<sup>2</sup>.

☎ 75 19 44 Mari Luz

## Lana

3 urteko neskatxo bat zaintzen dut. HONEKIN JOLASTUKO LUKEEN BESTE BAT zainduko nuke.

☎ 74 12 26

4etatik 8etara

Mutil euskalduna aste osorako EDOZEIN LAN EGITEKO eskaintzen da. Gidatzeko karneta B1.

☎ 74 23 30 Josu

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.

☎ 74 41 75 Txari

OHOko irakasle eta Ingenieritza tituloak ditut eta PARTIKULARRAK EMATEN DITUT.

☎ 74 01 48 Alazne

Ingelesa ikasi nahi duen NESKA BAT behar dugu haurrak zaintzeko LONDRESEN ELGOIBARKO FAMILIA batean. Apiriletik aurrera

☎ 74 08 17

PEDAGOGIAN lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin, OHOko eta REMeko klase partikularrak ematen ditu euskaraz zein gazteleraz.

☎ 74 39 24 Maite

PSIKOLOGIAN LIZENTZIATUA naiz eta OHOko klaseak ematen ditut. Emaizta onak.

☎ 74 14 14

## Bestelakoak

Hilaren 19an BELARRITAKO BAT galdu nuen San Inazio eta Onena bitartean. Perla zuri bat du erdian eta perla txikiagoak bueltan.

☎ 74 19 71

Urtarrilaren 9an, Maalako iturriaren ondoan, MOTXILA BAT galdu nuen. Barruan Hiztegia 2000 zuen.

☎ 74 24 43 Koro

P. Muguza eta King-Kong artean BELARRITAKO BAT GALDU NUEN. Perla urdin bat du.

☎ 76 02 33

Perla urdinak dituen PULTSERA BAT galdu dut. Aurkitzen duena saritzeko prest nago.

☎ 74 05 74 Maite

CARITASEK sukaldarako nahiz salarako ARMARIO BAT behar du.

☎ 74 15 09

☎ 74 12 57

## PREMAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak.....461111

Txanda hartzeko.....743354

Planning .....742950

Alkoholiko Anonimoak..740385

D.Y.A (anbulantzia) ..464622

Gurutze Gorria.....743864

Mendaroko Ospitala.756264

Drogomenpekotasun Z.741008

Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442

PESA (Eibar).....112131

Taxi Geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366

Kirol Zerbitzua .....744415

Kultura Zerbitzua.....742158

Mendaroko Udala ....756100

Ongizate zerbitzua...743736

Udaletxea .....741050

Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142

Elgoibarko Izarra.....741626

IMI.....741196

Kontsumo Bulegoa ...743088

Liburutegia .....743525

Musika Eskola .....742145

Mintxeta .....744315

Parrokia.....740842

Polikirolegia .....741361

Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296

Zaharren Biltokia.....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H. ....74 41 32

Institutua .....74 02 67

Ikastola .....74 44 41

L.H.I.....74 44 80

Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12

El Diario Vasco .....74 40 73

El Mundo .....74 22 67

El Correo Español...74 10 82

Egin.....11 84 21

Deia .....74 11 57

Zazpiki .....74 34 74

## OSTIRALA

22,15 ZINEA

"El cuervo"

✓ Herriko Antzokian

## LARUNBATA

10,00 DEFENTSA  
PERTSONALERAKO IKASTAROA

✓ Kiroldegian

19,00 INTSUMISOEN ALDEKO  
MANIFESTAZIOA

Irteera Maalatik

Antolatzailea: Talde Antimilitarista

19,30-22,15 ZINEA

"El cuervo"

✓ Herriko Antzokian

## IGANDEA

16,30 ZINEA

"Hay una foca en mi casa"

✓ Herriko Antzokian

19,30-22,15 ZINEA

"El cuervo"

✓ Herriko Antzokian

## ASTELEHENA

19,00 MUGERZA KROSAREN  
AURKEZPENA

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan.

22,15 ZINEA

"El cuervo"

✓ Herriko Antzokian

## ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"La teta y la luna"

✓ Herriko Antzokian

Ikuslearen eguna.

## 3 OSTIRALA

19,00 PINTURA ERAKUSKETA

Egilea: Alberto Ramirez  
plaentxiarra.

✓ Kultur Etxean

Hilaren 19ra arte.

21,00 PATXI ARRIOLARI AFARI  
OMENALDIA

✓ La Union elkarte

Antolatzailea: La Union

22,15 ANTZERKIA

Orain taldea.

Antzezlan: "Modigliani".

✓ Herriko Antzokian

## txandak

### FARMAZIAK:

EGUNA EGUNEZ GAUEZ

28, larunbata: Bidasolo

29, igandea: Bidasolo

30, astelehena: Yudego

31, asteartea: Yudego Escala

1, asteazkena: Ormazabal Escala

2, osteguna: Ormazabal Escala

3, ostirala: Yudego Escala

FARMAZIEN ZUZENBIDEA:

Escala: Rekalde 1, Plaentxi

Tel. 75 16 38

### OKINDEGIA:

29, igandea: IDARRAGA  
eta EIZAGIRRE

## ZINEA

### El cuervo

Zuzendaria: Alex Proyas

Antzezleak: Brandon Lee, Ernie Hudson, Michael Wincott, David Patrick Kelly.

Eric Draven, rock talde ospetsu bateko kitarra jolea, eta bere emaztegaia hil zituztenetik urtebete pasa da. Top Dollar izeneko tipoa da hilketen arduradun. Mendekua lortzearen beste mundutik itzuliko da Draven. Bere hiltzaileak hiltzen joan dira banan banan. Top Dollar-ek hiriarri sua ematea erabakitzen du "Deabruaren Gau"ren bezpera egunean.

## ZINEA



### La teta y la luna

Zuzendaria: Bigas Luna

Antzezleak: Biel Duran, Mathilda May, Miquel Poveda.

"Jamon jamon" eta "Huevos de oro" pelikulekin batera trilogia iberikoa deitzen dena osatu du Bigas Luna zuzendariak. Maitasun istorio bat planteiatzen du Lunas-ek, ikuspegi mediterraneo eta felliniano batetik. Ume bat eta kante flamenkoa gogoko duen gazte bat ere (Biel Duran) artista ambulante baten titiaz maitemintzen dira. Sexualki betetzen ez duen artista honen senarra puzkarrak botatzetik bizi da. Pertsonaia ezberdinak nahasten diren pelikula dibertigarria da.

otsailak  
**4**  
LARUNBATA

## *Baseriz baseri ekean*



### *Gaztetxoak*

**KOPLARIAK: Bertso Eskolako bertsolariak**

Goizeko 9etatik 13,30ak arte :

**URRUZUNO eta SAN ROKE auzoak**

(Goizeko 8,45etan Plaza Handian)

### *Nagusiak*

**KOPLARIAK: German Meabe, Jabier "Ziarda"**

**eta Juan Mari Areitio**

Arratsaldeko 14etatik 20ak arte **SAN PEDRO auzoa.**

Iluntzeko 20etan: **AFARIA** San Migelen.

Gaueko 22etatik goizaldeko 4ak arte (bi talde)

**SAN MIGEL auzoa**

**SAN LORENTZO auzoa**

(Eguerdiko 13,45etan Plaza Handian)

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



**OHARRA: Santa Eskeko koruetan parte hartu nahi duenak 74 16 26 (Imanol) telefonora deitu behar du otsailaren 2a baino lehen.**

# ANOTA

SAGARDOTEGIA-JATETXEA



## SAGARDOTEGIKO MENU BEREZIA

- Bakailo tortila edo Zezina tortila
- Bakailoa frijitua edo Zezina albardatua
- Idi txuletak
- Gazta, menbriloa eta Intxaurrak

## JATETXEKO KARTAN AUKERA HANDIA

### Berezitasunak:


ARRAINA:

Bixigua, kogotea, Rodabailoa eta rapea.

HARAGIA:

Idi txuletak, solomoa, sahieskia eta arkumea.

*Elgoibartik oso oso hurbil gaituzu. Zatozte!*



Urraki errep.  
Tel. 81 20 92  
20730 AZPEITI

*Sagardoa urte guztian!*